

# Koloreak «Orixe» ren begian

PATZIKU PERURENA \*

*Barabarkotik Balerdiraino nibirri-nabar mailloa;  
zimur-gunetan elurra bada, ez bela alde egitekoa.*

**K**ristau fedeak landu eta zorroztu dituen bi zentzumen nagusiak **begia** eta **belarria** dituzu. Bata bezain garbi eta puru bestea. Ez baitizute bitarteko *lohirik* eskatzen, ukimenak edo usaimenak bezala. Izpiritu hut-saren adierazle dituzu beti, entzumena eta ikusmena. Gizonak ederlan gutxi dizu egina, begi belarriak ernegabe. Munduaren ederra, bi zentzumen nagusi horiek darabilte batipat gizonaren gogoan. Kultura kristauak halaxe hezi bait ginuten.

Orixe berriz, fede ahuleko arinok baino puskaz ere barrenago. Anima edertzale hura, larru beteko kristaua izan, bi kristauzentzu aratz horien ardatzean zebilen, etengabeko joan etorrian. Ez baitzituen bi olerki eder, alferrik utzi. Bata begiari eskainia: **Argi ta Margo**. Bestea belarriari: **Itz eta Mintzo**. Horrez gainera, berak aitortua duzu *Sinismen garbi* poeman: «*begiz ta belarriz nahi zaitut sumatu*».

Bi zentzumen jainkozko hauen gorantzian Orixek apropos landutako olerkiok ematen duten argibideari jarraikiz, ikus genezake ederki, zenbateko inportantzia izandu duten Orixeren izakeran eta siniskeran, nola *begiak* hala *belarriak*. Hasteko, araka dezagun Orixeri *begitik* sartzen zaion *argitasun* eder hori.

Euskal koloreen usariozko erabileraz eta senaz deus gutxi dakien kale-tar askok, Lizardi jo du, euskal lurra bere kolore apainez edertu duen aurreneko begiernetzat. Ni ez nator bat horretan. Lizardiren begia xoratu dizu noski koloreak, baina ez euskal lurra berezko duen tankeran. Hagitz dotore, baina kolore arrotzez jantzi du Lizardik gure lurra. Behar bada, horrexegatik egiten zaigu hain eder. Euskal seneko menditarrak inoiz ikusi gabeko tankera arrotzez pintatu dizkigulako gure bazterrak. Ez hala Orixek, begia euskal senera Lizardik baino milatan zorrotzago zuen hark:

*Gauak illak zitun, argiaz batean, margo bizi oro  
Egunero ditu lurpera; argiak pizten egunero.*

\* Licenciado en Sintomatología Vasca.

*Illunak lo nauka erio; argiak pizten nau osoro.  
 Urre meatze dut Aralar, elurrez, argiz, gorri zuri:  
 Auspetik txingarra bezala, lainotik sortua dirudi.  
 Zazpi margo dira? Zazpitan zazpi bai, zuria iturri.  
 Zeru eta baratze, margoei begira egunero nago  
 Itsas-urdiñetik zeruarenera, zenbat alde dago!  
 Musker bizitikan musker urdiñera zenbat areago.  
 Nere sapailotik lili xuri bati nagozu begira;  
 elur garatua direla diokezu, ainbeste zuri da!  
 Aretxek begia, bestek ez bezala, lilurutzen dida.*

Honela hasten da *Argi ta Margo* poema. Ez gaizki esan dut. Hasi, egunsentiko oilaritearekin hasten da, egunsentiko biziberritzearen zantzua dakarten hotsekin. Harrigarria zinez. Begiari eskaini dion poeman ere belarria jarri dizu aintzindari Orixek. Belarriak darama argitara. Hotsa duzu beti argiaren igarle. Pizti hegaztien esnatze hotsek dizute adierazten argi urratzea ere. Oso azalpen zuzena dirudi honek, enpirikoa kasik. Orixek beti gauzen muinera jotzen baitzuen, eta honetan ere berdin: belarria jarri dizu begiaren gidari. Noiz erne noiz zozoilo, *aditutako* hark eragiten bait dio beti gure begiari. Izanez ere, *adimenik* ezean, apenas deusik bereizteko gauza izanen ginaken begi hutsez. Txintale dakar argia, txintale iluna. Hau, inork baino hobeki, buruz landua eta bere larruan bizitua zuen Orixek. Horregatik heltzen da *belarriz* koloreen ederra ekarriko dion goizeroko *argitasun* berri-  
 ra:

*Egalak astinduz oilarrak jo digu argitu baino len;  
 ordu bete gero, doi dut argiaren xintik autematen.  
 Argi urratzean txori bakartien txio dut entzuten.  
 Ardia jeiki da, gorputz-eragiñez jaurtiz otxikara;  
 alai zabaltzen du muñotik zokora jolae-dandara;  
 egurats epelak dakar beorraren irrintzi-karkara.*

Egun berriaren igarle den goiz musika guzi horrek eramaten du Orixek argitara. Berak aitortzen du gero, beste dena. Leitu berriz goiko poema zatia: *argiak pizten nau osoro*, belarriaren gozoa begiaren gozoz osatzean, alegia. *Zeru ta baratze, margoei begira egunero nago*. Berak esana dakigu beraz. Orixek, inguruko koloreen ederra, ez zuen oharkabean pasa, ez horixe.

Eten egin dugun poema horrekin aurrera joaz, Lizardiren tankera xamur onbera duen pasarterik tipikoena landu zizun Orixek, eta haren eraginez behar bada. Ez al du ondoko pasarte honek, harako «*sagasti berri, sagasti zuri* / inguma atsegintoki iduri» haren taurik aski. Baietz uste nik. Han ere kolorearen **zuria** zen *lilurakeria*, Nikolasen hitz beretan esateko. Hemen ere halatsu:

*Inguma xorgiñez, gogakizun xuriz, bete zait burua.  
 Zertako so egon? Eun bulkoren mende da nere burua.  
 Ez dut irauli nai gogai xuri oien barneko lapatsa  
 Irakiten utziz, jaurtuko du laister ondarreko patsa.  
 Aski da baratzez. Eskuan makilla, urbil dut aldatsa.*

Orixek uko egiten dio Lizardiren *lilurakeriari*, «*ilaun pasakorra*» bezalatsu dela esanez. Lizardi eseri egiten da, (*ene begiok ez so besteri / bide-ertz*

*onetan nadin eseri*) haur gisan xoraturik, beheko sagastiaren **xuriari** begira. Baina, Orixek, berehala dio: *Aski da baratzez. Eskuan makilla, urbil dut aldatsa*. Esanez bezela: *ez nago zelai xuriari begira egoteko, baditut hori baino sentipen malkor nabar latzagoak, sakonagoak; ez dut umekeritan galdu nahi gogamenik*. Kontuan izan gainera, ez zituela Orixek gogoko *alferregonzale* edo *kietistak*. Orixeren izakerari, sineskerari eta olerkerari mugimendua eta erritmoa darie beti. Gero, Lizardik *geldian* burua xoraturik behera begiratzen dizu. Horra hor ezkortasun beraxka. Orixek aldiz, burua *ibilian* argituz gora begiratu nahi dizu. Hona hemen baikortasun bizia:

*Aldats gorakoan, ostorik ez ta, so goi urdinari;  
aldats berakoan, oztopa bildurrez, erne larratzari.  
Eman lasaipide birikeri, eman argi buruari.*

Lizardi *bihotx xoramenak* jartzen du kantuan. Orixek berriz *buru argitasunak*. Joxe Azurmendik ongi sinalatzen zuen bezela, Orixek: *kalekume xongoxuri deitu baitzion Lizardiri*. Lizardik *ez du natura baserritar begiz inon ikusi*. *Ez legoke gauza absurdoagorik, Orixek erlijiokeراز pietista bigunbera genuela uste izatea baino*. Hona nola bukatzen duen **Argi ta Margo** poema:

*Illun, Ago geldi! Argi! Ez iradu! Luza adi!  
Argi, margo, lore, mitxeletei baiño, oni nagon adi.  
Argiak begitan jo naunean, neurtiz berritan ler nadi.*

Lehendik *Azken afaria* poeman beste hainbeste zuen esana. Nere iduriko, hagitz pasarte zoragarriak baditu poema honek:

*Ikusten, ukitzen, entzuten, usmatzen, .... Siñisten  
Margo zuri antzo fedea zazpitan zaigu barreiatzen  
Nik dakidantxoa, sineskizun ontan eder da kokatzen.  
Nik ikasi asko kolokan dabilla, ba dut uste aizun;  
bainan egi ori, Zuregan etzinik, nere guzien muñ.  
Uste, diotenez, aburuz, iduriz... zenbat uste ergel!  
Oietaz burua bete bizi dira bost eta bost ergel.  
Agur guzieri! Ez dut oien mende bizi nai otzepel.  
Margo denen ama argia dan eran, Egien Erregin  
Fedea. Margoa bai, bainan argia inork ikus ezin.  
Sinestargia, izkutuen dala, argirik argien  
Gure baitan illun, bere baitan argi, margorik zurien.  
Ortatik irten da zazpireun izpitan jakiterik geien.  
Gure sinistea, argi zuri dala, argi gorri, bero  
Jakin nai lukena betor mai ontara murgilka goizero.  
Illunean argi, begiak itxirik ikusten obeki  
Garrrik ez, ta gori. Biotza su ontan dugun irazeki  
Mundu itsu otzak argi-bero auen berririk baleki!*

Margoa, axala bezala duzu Orixeren gogoan. Argia orde, muina. Hura beti muinaren bila. Bere larruan gartsuki eta bertatik bertara bizitakoa maite zizun Orixek; ez *ustezko, diotenezko, aburuzko, irudizko* axalkeriarik. Naparroan hazia eta hezia zen Orixek. Nortasun gartsuko gizon menditarra. Goiko salaketa hori Lizardiren *koloreddi politt axalekoari* egina ere izan liteke. Giputxa beti *hotzepela* duzu, batera ala bestera iraulerreza. Naparra aldiz, barne garrak zaildua, bere hari tinko eutsiko diona.

Buruko argitasuna, argitasun jainkozko hori, jartzen zuen Orixek, *xenttikeria pinttorexko* ororen gainetik. Hori, bere olerkigintza guzian, eta noski, koloreak azaltzekoan, igoal berean. Koloreen ugaritasunari baino inportantzia haundiagoa ematen zion koloreen amari, *argien ama zuri* hari. Hara zer dion *Jainkoaren Billa* liburuaren 154-55 orrialdetan: «*Fedea, argiarekin eta kolore zuriarekin alderatu diteke. Ikusten degu eguzkiaren argia odei-tarte batetik ixurtzen dala, sorgin-orrizi edo erdaraz espectro esaten zaion ortan. Ikusten degu, zazpi koloreak ainbana dauzkan pirrika bati gogotik eragin ezkerro, zazpiak bat, zuri, bihurtzen dirala. Orrela, bada, fedea kolore zuria bezala da*».



Beste poema batera jauzi eginez, *Barne-muinetan* ere kolore **zuribel-tzak** ditu nagusi. Belarria nagusitzat bazeukan ere, poema honen hasieran *Jainkoaren begiera* jartzen du:

*Aitzin-gibel, ezker eskuin, gain barne  
neurtzen ari nauzun Begi (Jainkoarena).*

*Zeru, lur, egurats, gizon, nigana tut  
epaile-sur oro begi.*

*Begi oiek begi otan zizta naute.*

*Elur zuri biur nazu  
oil itzazu ogen beltzak enegandik.*

*Alde ditzadan begiok beltz ontatik.*

Bigarren poeman, *Aldarean* izenekoan ere, begia dugu zentzuen gidari:

*Jainkoa ain berez erantzi bada  
zertan jantzi nik irudimena?  
Fedea lagun, bizi ikusten dut.  
Begira daukat, begira nauka.  
Gurpuz-begiez dakusdanean ez nau lilura  
ez du dirdairik; doi doi margorik.  
Gero... Zuririk ere ez dezaket ikus.*

Ondoren *zuri-beltzen* arteko burruka garaitua duelarik, *gorrira* bilduko da poeta. Biotzaren *gorri* gartsura:

*Sutu, gorritu bekit biotz au*

Hagitz ederki ikusten da, poemaren prozesuan nola biribiltzen duen hiru kolore nagusien sintesia, **zuriaren** eta **beltzaren** arteko gatazka **gorrian** urtuaz, eta ondoren, bihotz pilpira *gorri* lotan baretuz

*Buru gartsu eta astun, zoro biurgarri  
Logaleak ilauntzen nere txinar gorri.*

Poema honetan ez dizu beste munduko kolore berezitasunik erakusten Orixek, ez badira *lotsaz gorri naua, gorri baikera alkez, Aren dirdaiak denik beltzena aizatuko, odei beltzak, ilunpe beltz ontan...*, eta antzeko esanera arruntetan ageri direnak.



## EUSKALDUNAK POEMA HAUNDIAN

Bere biziko poema gailen honen aurreneko zatian, *Pestaburu* delakoan, euskaldun menditar baten begiz azaldua dizu poeta erneak kolorea. Basagizon, egurgile eta ikazgileak herrira datoz urteko festak ospatzera:

*«Iturriaundi» askan aurpegiak garbi  
-astean ezpaitute azalik ikuzi-  
ortzak eta sakela bakar-bakar zuri  
gainerakoa ikatz, eskuak ilinti.*

Basamutilak burutik oinetara ikatzez **beztuak** datoz. Zarpajario beltz hartan, ahoko hotz **zuriak** bakar bakarrik nabar mentzen dira; eta lan zakarrean sututako esku **gorriak**.

Hurrena, bertso tara etorria *SaldiskoBeltxa* izanen dugu. Orixek, kolorea, herri giroko usarioan sartzen dizu beti. Ez nolana hi gainera. Egokiro beti.

Ondoren, Mikel dantzari gatzeak, Garaziz maitemindua dirudi, baina besterik ere badabil tartean:

*Mikel Igarategi, Muno-ko maiztarra,  
ezpalez gotorra, ta bizarrez gorrixka  
zortzikoa ateratzen asi da murrizka.  
Garazi zuri-gorri -ille beltza dirdai-  
bi mutil orietan nor digu maita nai?  
Gorritxak aukera du zoriak emana.  
oinak zumezko ditu, larru beltxarana.*

Hasierako Mikel bizar *gorria*, gero *Gorritxo* bihurtzen du. Herriaren senak beste hainbeste eginen luke, nola aurreko bertsolaria **Beltx**. Izan ere, ba ote euskal herririk, halako **Beltx** edo **Gorri** gabekorik. Gero, poemaren hariak eskatzen duen guzian segituko dizute bi kolore *nortu* hauek.

Ondoren, ahari talka dator, eta hauekin ere, artzai baten senaren inbidirik gabeko kolore jokia eginen du:

*Zelaia betetz dator Leitzar arranditsu  
ari ille-motza dakar, beltz-nabarra musu  
Leitzalarre-ren berri aspaldian ez du;  
mihi ikara ager-gorde ta bi begiak su.*

Leitza Uitzietako jende demazalea hasia duzu elkarren leiha sutuan:

*Akalde zabal zuek! -eta kemen gutxi  
Beltzenak esaten asi dira elkarri;  
batek «keigorritu» ta besteak «arrandi»  
Artean aruntzago badira beste bi.*

Berehala, Uitziarren aharia dator, zuin barnera:

*Ontan agertu duzu, ari mutur-beltza  
ille-luze ta legun, muturra zorrotza.*

Aharia hasi dira elkarri tunpaka. Baina ikus poetak zeinen ederki jokutzen duen haien koloreekin. Baserritar petopetoak ezin hobeki:

*Ara! saiekaratxo talkatu dutela...  
-aize burrundak baitu aizatzen orbela  
ala Beltzek Nabarko-. Batzuk «joan dela»  
Baina bizkor egon, ta zuti da berela.*

Kolorea, anima bizidun bihurtu du hor poetak, nola beti arditan dabilen artzaiak. Ikusi besterik ez da, nola darabilzkin bi aharien kolorezko izenak, behin eta berritan:

*baldaixkatzen asi da Leitzako Nabarko...  
Epurgainka Nabarko, bi besoak zutik...  
Muturbeltz argitu da, asi da berriro  
zorrotz begira dio Beltzak Nabarrari  
beste bost tunpa dizka eman; biek geldi...  
Beltzak Nabar utzita, zuinetik igesi.*

Hemen kolorea ez dabil Lizardirenean bezala, arrotzak edertua. Hemen kolorea, berez bezala ari du. Ondoren dema galdu duenak honela egiten du birau, euskaraz deabrua **gorri** dela adieraziz:

*Leitzarrek ere ez dute aizekeri asko  
irabai bai, orde, moskor arek antzo.  
irabaz-lege ori txar jarria dela..  
«Tximisten Bartangorri» ala duk oitura  
Legea nola daiten ez orain ardura*

Lehendik aipatutakoaz gaineko kolore berria, honako xelebre hau duzu:

*Ezkon sari badukeek zorri larru urdiña  
kukuso begibakar, txerri buztan motxa*

Hurrena Aztazuriketakoan ageri da berriro kolorea, poeta beraren ohar eta guzi:

*Urte artan izotzaren ukiturik ozta (2)  
alea gorri-gorri du eguzkiak jota  
lastoa zuritu gabe itaiak du bota.  
Beiak afal ondoan badu zer ozka.*

(2) (Uitzin inoiz) eldu baino len atzematen du izotzak artoa;  
ta lastoa zuri-zuri gelditzen zaio, alea xurturik.

Hurrena azeri saria kobratzeko txakur **gorriarekin** askotan egiten zen martingala beratsua muturreratzen dio poetak ehiztari txarrari:

*Erbi ankamei bat ez dut il eure denboran  
untxi gorri bat mendira zorroan eramán  
erbi biurtu bear, andik onakoan.*

Beheraxeago, nik beti beltz edo zuritzat edukitzen nituen bareak aipatzen ditu, zeinek eta «bare herrikoa» zen hark:

*Gogoan da an, iazko gauaren illuna  
bare gorriak etlzari dena galdu zuna.*

Horren ondoren, *baba beltza* aitatzten du, bestelako kolore berezitasunik gabe. Ondoren, berarekin ezkondu alde, Erregeren alaba gaixoa sendatu nahi duten hiru mutilen ipuineko aurrena:

*Zaharrena badoa bidez, besoan saskia  
ondotik ezpaineraino sagarrez gorria.*

Gorago berriz, euskal usuarioa den gisan, Jauregiko Erregeren alaba gaixoaren kolore **horia** dakar gaitzaren adierazle. Bizkaitar izan balitz, **beilegia** paratuko zizun hor **hori** ordez:

*Ezkoa bezain ori zun argi-azala  
Sartua zirudion betikoz itzala.*

Ondoren kantraesana beregan duen *axuri beltza*, zorionaren seinale, sorginzuloko atsoak mutilari emana. Horretan bai badizula **beltzak** sinbologia jakinik:

*-Tori bada, bildotx beltz au; ar zazu zurekin;  
etzazula deusik ere trukatu onekin;  
ez utzi besotik ere... Au egitearekin  
ezkonduko zara zu Erreginarekin.*

Kopla herritar batean dakarki hurrego kolorea, nere iduriko mozkor baten begije gorria adieraten lukena:

*Ikusi nuenean nik zure begia  
iruditu zitzaidan anpoloi gorria.*

Bidenabar esanda, gaur *tomatea* bitarteko adierazten den **gorritasun bizia**, behiala, euskal usuario zaharrear, *gerezi ginga* bidez adierazten baitzen.

Sail bereko beste kopla batean ere, nahiz ezkutuan, kolorea duzu konparabide:

*Ikusi nuenian nik zure agoa  
iruditu zitzaidan, karobi zuloa*

Nola ez irudiratu ba, sutan dagoen karobi zulo ilunetik ateratzen den kare zuria, eta hatsa darion aho zabal iluneko hortzaje zuria? Hortaz jabetzeko ordea, bata eta bestea ezagutu behar.

Ondoko ezkon kanta zaharrear ere, alabaren arreorako **zuritasun** eskasiak kezkatzen du ama, garai hartan **zuritasun** iturri zeneko lihoa gogoan:

*Ene alaba etzaukanagu zuritasunik etxean  
Lio-izpi bat berezi nizun lioa ondu zanean.*

Aurrera darrai artazuriketak. Amonak, lastairendako hobena bereiziz, bazterrera lekutzen du gain **zurikin** latza. Bihamonean larraina jotzen badu eguzkiak, egurastu lezake **txurikiña** sardez. Dena den, zuritasun hauek ez dira, Orixek propio asmatuak, hura oharkabeaz azaltzen direnak baizik.

Segidan, artazuriketakoan berritzen ziren etxean etxeko eta herrian herriko izengoitien zerrenda dakar. Haietan ageri diren koloreak, hauxek dituzu, arrotz hori aurrean dela.

*Gazura berde, Perutxeneko  
Ezkila jotzaile burutxuri  
Andre gonagorri, Martipereneke  
Gona nabartzoakin or Madozkoak  
Neskatxa beltzaranak or Mugiokoak  
Galtzagorriak dira Aldazkoak.*

Hurreneko oharrean, *Errando* izeneko komeria laburraz, honako hitz hauek besterik ez dituela ediren aitortzen du:

*Non ditun, non ditun, nik emandako eun dukat  
auntz adar-motxa, txerri isats-motxa  
arakuso begibakarra, zorri larru urdina; non ditun?*

Ez zuen horratik, irudimen makala garai hartako jendeak, besteak beste, *zorri larru-urdin* hori ikusteko. Gero, euskaldunak koloreekiko senti-beratasunik ez dutela izandu, esanen dizute! Ea non ohartu diren zorri larruaren koloreaz.

Lehen poetak oharkabean zerabilela iruditzen zitzaigun zurtasun hura ere, propio erabilia izatera pasako da orain, bere ohar eta guzi:

*Naiko txurikiña badun lastairak betetzeko  
Lioa ere bai zurtasun eiteko (1)  
(1) **Zurtasuna** arropa zuriari esaten digu.*

Gero, gaztantzertatik zintzilik kordan paratutako hamar hartaburu koloreak nola ez ba erakarri begia, beheko suko keak beztu ezkerok:

*Elkarrekin kordatuta ertokian zintzilik  
ekeak beztu baino len, alde zuten andik.*

Euskal usariaren begiz bereganatzen dizu beti kolorea Orixek. Halare, artoak zurtitzen bukatu ondoren, batzuk irradako dantzan hastean, besteak honela gelditzen dira begira:

*Artapil txuri inguruan alkiak illara  
bata besteagandik aski tarte bada.*

Lizardik, ttikitan kaxkagorri zuen seme Mikeli, **burutxuri** deitzen omen zion. Orixek berriz, gaur guretzako **gorri** litzaken artapilari deitu zion **txuri**. Gorritik zurira bada alderik. Guri hala badirudigu ere, ez ordea hainbestekorik, **horirik** izan ez duen usuario zaharrean.

Artazuriketa poemaren atzenaldera dakarren koplak zahar batean, berriz, emakume begigorriak duen usariozko sinbologia guzia biltzen du bate-ra:

*Neure emazte ankarin  
ttotta non dan badakin.  
Bi begi gorri oiekin  
deabrua dirudin.*



Bistan da: **ttotta** horrek pattarra edo koinaka edo dena delako edari bizia esan nahi du; oraindik hala esaten baitzaio euskal herri askotan. Beste guzia esana dator koplan: **hankarin, edale, begigorri**, beraz euskal usuarioan derrihor, **deabru** izan behar.

*Jadaneko gaztainaroa* da. Mikel eta Garazi ekarren maiteminez, goizean goiz gaztain biltzera doaz:

*Bide erdi gabe, biligarroak xinta ñabarra jo diote.*

Badakigu euskaraz nabar hitzak eremu semantiko zabala duela. Begiari dagokiona du, halare nagusi. Horko *xinta ñabar* horrek ordea, begia eta belarria, xarma sekulakoz elkartzen dituelakoan nago.

Bezperan egindako gaztainpilean mahuka gozoan ari dela harrapatu duten zerriari berriz, **ortzuri** deitzen dio poetak. Zerriaren senide zaharra deneko basurdeak behinipein, bere larruje ilunaz oso bestera, bi letagin mutur **zuriak** baititu nabarien.

Gaztaian alea garbiro biltzeko ere, *zakuto xuria* dakar Garazi neskek. Geroxeago, mutilak zortzi muxarrak beretzako eman dizkionean, neskek ohizko esker onaz gain, zerbait gehixeago esan nahi lioke, baina ezin:

*aren antzea gora nahi dio  
ta itxurikatzen ez daki.  
Izketan ere eiztari den ark  
itz erdiño bat bait du aski.*

Gero neska mutilen arteko maitasunaren **zuria** azaltzen du poetak, euskal letretan gutxitan aurkituko duzun edertasunez. Errepara zaitez zeinen konparazio egoki eta dotoreak egiten dituen, maitasuna gorputz muinean ari den jainkozko **Norbait** bailitzan:

*Itzik ez dute zillegi, baiña biotzez dira mintzatu  
Aien barnean Maitasun zenbat ari den zeñek asmatu?  
Bart arratsean larratz garbia, gaur goizean ziza zuri  
Artzaiak, eiztari, asmatzen ez du, zer indarrez diran azi.  
Negu-gau batez lurmen dagola, jeikitzean elur lodi:  
Maiteak ere istillu gabe, lanak egiten badaki.*

Handik hurrena, neskatxaren larrujea, orduko usuarioan derrior **zuria** behar zuena, azaltzen du, inoiz larrak larrututa zangosagar zurietan nabarmen zuen odol **gorria** ere ahaztu gabe:

*Nekez ikusi ditiot beso tan zango  
Uretan inoiz luze, biribil, oiiala baino zurigo  
zenbaitez ere, belarrekoan, larrak odol duta gero.*

Behin eta berrizko konparazioak, Orixek hain ederki erabiltzen zituenak, datoz ondoren ere. Neska maitemindua gaztain biltzetik etxera doa pozez txoratzen:

*Artzaoi goiztarra errian zuri ikus dezanean laino,  
ez da pozago, listua kurkaz, gure Garazi den baino.*

Urrena herri sinismenak dion bezala, arrats **gorriak** dakarren bihamon onarekin konparatzen du maitasunaren etorkizuna, neskaren etxaldera begira:

*Lenik begia zuzen zizta du Gerriederren kabira  
Goizgorri baiño maiteago du arrasgorriren distira  
Onek, arean, baitakarkio biamon on idurira.*

Gaztainak erretzen ari dira beheko suan, danbolinean, larazetik zintzilik; egur klase guzietan ez dizute tankera bereko galda eta kea:

*Lizar-arbaren galda zuria, danbolinak du eskatzen  
besoaldi bat sutara dute, baiña ke gorri emaiten.*

Zartanaren ateska ireki, eta errexe diren ikusten ari dira orain:

*Zenbaitek azal gorriantzatxo oraindik ageri dute  
beste galdaldi labur batekin aski beztuko dirade.*

Laster loretan dago, neskatxak erein berri dizun linerria. Egia da **urdin urdina** zizula lorea:

*Aitzurrez lurra landu, ekuarez irin  
zelaitzen du lenbailen azia sor dedin  
berrogei eguneko, lorea dizu urdin.*

Baina lino harekin egindako zapi **zuriak**, ohe azalak, maindireak eta beste hari **gorriz** bordatzeko ohituraz ere ez da ahaztu poeta, ezkongaien izenkiak letra haunditan uztartuz:

*Lan ontako oialak bereizi arretaz,  
baia bagindezke gu biok aietaz  
Zure naia ala balitz, ari fin gorriaz  
Batera zazu zeure izena bereaz.*

Aitak azaldu dio alabari, Mikelenak emandako ezkontz mandatu, eta hara zenbat *kolore* hartzen duen neskaren aurpegiak, poza, lilura eta harri-dura nahaspilan dituela. Oso gogoko dizu **nabar** hori Orixek. Lizardik *urte horizonta* hainbat bai, gutxinera ere:

*Elur aundi goiz batez, zerugaiña garbi  
leiotik ikusten dut nik Aalar mendi  
eguzkiak elurra jo du nabar-gorri  
ala dirdir jartzen neskaren aurpegi.*

Auzo guziko zerri hiltzailea berriz, bakar bakarrik sudur puntan pintatuko dizu poetak, gorpuzkera erne aski neurtuz:

*Biamonez dei dute arakin Potxolo  
urtaroaz jan oi da amaika amen goxo  
Lepoa motza du, ta bizkarra betea  
sudurra piper gorri, ezpain aterea.*

Goizean amona sukaldera denean, han aurkitu du *katu beltza*, gauez sutondo epelean etzanda egondua:

*Amona sukaldera orduko mix beltza  
isatsa zuti dula goizean antxe da  
Bart sutondoan egin digu naiko loa.*

Sartu dio labana Potxolok zerriari, eta zorrotonean dator odola:

*Iturri gorri bero sortzen da berela  
aurretik sartzen dio bildurrez bezela;*

*ez uki nai biotza lenetik; bestela,  
odolak ustu gabe geldi litekela.*

Zerria erretzen ari dira ondoren, eta bi kolore dira begien deigarri. Poeta ez da ahazten, aurretik zerriari *Ortzuri* ditu diola. Nik uste, zerri hiltzekoan han aritu denak bakarrik ikus lezakela kolore joko hori:

*Doniane-suetan dabilen zagia  
baino oraindi beltzago jartzen da zerria  
anketan luzago eukiz lastargia  
erantzita azkazala, ager oin zuria.  
«Ortzuri» deritzon au, onezkeru «ointzuri».*

Gero baratzara doa aza bila, baina, gure gaurko aza hosto berdea orduko usuario zaharrera **urdin** bihurtzen du poetak:

*Atsaldean Garazi baratzera dia  
jateko-billa, al balu, aza bat zuria,  
Besterik ezin badu osto ugaria.  
Orririk urdinena goxatzeko bada.*

Beste txanda batean, demonioari **inpernuko beltza** deitzen dio. Handik gutxira, *Aizkora Jokua* dator. Elur lodiz estalia den mendi zurian, urrutira bistatzen ditu poetak, *esnean euli* antzera, edo obeki itsas antzar gisan, zuri zabalaren gainean puntu beltzak errenkan. Leitzarrak behar dute inondik ere:

*Iztar erdiraino da elurra gainean  
anka jaso dukenik ez dagoke Leitzan  
zurian beltzik datoz -euliak esnean  
obeki itsas antzarak elkarren atzean.*

Aizkolariak erre, bata *beltza* eta bestea *gorria* izanen ditugu, poetak igerri dion usuario zaharrera. Hartara elkarren arteko demak are indar haundiago hartzen baitzitu:

*Leitzan badute seme aundi «burubeltza»  
bi aldiz gizon dala berari deritza...  
etsaiari begiar onela da mintza:  
Mutikl gorrixka ez aiz nere leporaino  
Noizko sartuko ote duk enbor erdiraino:  
Damutzen bazaik, esak, beta duk oraino.*

Segidan *Iñauteri* poeman sartzen gara, kolore nabarmenik gabe: *ardo beltza, lengo zerri «ortxuria», larrugorri, kaskazuri, baba beltza...* eta hola-koez aparte. Baina, hara nola juzkatzen duen *ardo zuria*, etxekandreak moskotzen zirela eta elizak atera zuten zalaparta haren lekuko:

*Baten batek etxean  
bildur gabe lezake edan,  
gorria baino zuria naiago*

*usasunaren kaltean.  
Senarrak dantza deza makilla  
andrearen bizkarrean.*

Bidertzeko eztoman burruka ari dira, ardandegian hasarretu diren bi mutilak. Belar muino **berdeagoa** (oraingo eran esana) nabari da astoak piz egindako lekuan:

*Belarra dago gaindua, asto gernuz urdindua.  
Peru eskerrak pozik antxe du eltzen ezker eskua.  
Berriz indar eta oldar, etsi **beltzik** ez du nair ar*

Gero, Azeri dantza eta Antzar jokoa datoz, baina, *antzar zangogorri, zaldun burutxuri, antzar girgilgorri*, eta holakoz landara, ez da kolore berezirik ageri.

Hurrena, *Denok Bat* atalean, Uitziko Errekaldenen biltzen zen alde eta molde guzitato jendearen kontuak aipatzean, lehen edierazixetako «*ikazkin beltzak sakela zuri*» esalegea dakar, esanera zahar askotan bezala kolore biak elkarren aurka jarritz. Handik gutxira, bazterrik bazter lan berritan zebilan oihartzuar barrabasa honela azaltzen du:

*Oiartzungoi Mitxelena, len burni olan ari izana  
deabru gorri, gizabeltz, lana azala aiña alda zuana.  
Kontrabandoan erori ta, asto beltzarenak eramana.*

Menditar izanik bera, itsas gizonak ere ez dauzka ahaztutzeko Orixek, euskaltasunaren beste alderdi nagusi gisan:

*Bizkaitar, giutz eta laphurtar, bizi billa pakean  
lengo gorroto **beltzak** utzita, zebiltzan itsas barnean.*

Berehalakoan, *IRU BIGAEN ZERGA* zer nolako gatazka ilun eta gizasarraski krudeletatik sortua den azaltzekoan, Berdabioren leiendako zaldiarekin konparatzen ditu hango zaldiak, orri oineko ohar eta guzi:

*Bi zaldi gazte, lau anak zuri, izar zuri bekokia.  
Denok dakigu alaxe zala Berdabioren zaldia (1)  
(1) «Berdabioren zaldiak, laun hankak ditu zuriak...»*

Negu ondoko udalehen zantzuak datoz Axurtaro poemarekin batera. Hilabete batzutan baso urrutiko ezkurdian bazkatu diren zerriak, etxera datoz, mendi tontorrek oraindik barraska zuriz daudela:

*Larre-zerriak ezkurretatik, azkazal-gorri zetozen.  
Barabarkotik Balerdiraino nibirri-nabar mailloa;  
zimur-gunetan elurra bada, ez bela alde egitekoa.  
Aren bizkarra iduri oi zait, «zebra» deritzon astoa.*

Ikusi duenak badaki, elur hotzak *garbi gorrituak*, nola ekartzen dituen hazkazalak zerriak basotik. Halare, harrigarri eta guzi egiten da, poetaren

begi zorrotza horretan ere erreparatu izana. Are harrigarriago egiten da ordea, **nibirri-banar** hori. Poeta erneak, kasik belarriz sortzen dizu hor, kolorearen bizitasuna. Askotan egondua nauzu, beti gure izakeraren eta paisajearen ereduztat eduki izan ditudan elurte ondoko larre *zuribanar* haiei begira, baina ez dut inon aurkitu hola baino ederrago adierazirik.

Orixek kolorearekiko zuen entigogortasun zorrotza hitz batetan adierazi behar banu, hitz horixe hartuko nuke ereduztat: **nibir-nabar**. Lehendik adierazia baitut, kolore *nabarrak* harengan zuen eragina. Nere gustorako ordea, paisajeari **nibir-nabar** deitze horrek ematen dion indar guziak porrot egiten du, ondotik «zebra» arrotz horrekin erkatzean. Niri behintzat, amorrazio ikaragarria ematen dit, halako hizkuntz sena eder eta prosodikoz adierazitako kolore bizitasun horren ondotik, *astakeria* horrekin topo egin beharrak. Dena ezin hobeki esana zegoenean, zergatik erantsi itsuskeria hori! Utikan hortik!

Ez pentsa garbizalekeria denik, ez. Hain sinisgarri egiten den azalpen paisajistiko zoragarri horren oreka erabat deseginda uzteak ematen dit pena. Izan ere, nork imajina Mailoa mendian zebrarik? Nork imajina Afrikako hareatza lau lehor gorriko abererik, negu beltzeko Maillo malkor harrizutan? Poesian askotan, konparaziorik ederrenak eta kultoenak baino askoz ere gehiago balio baitu poemaren kontestu egokiari, koherentziari, eusteak. Sinisten ere gaitz egiten zait, Orixeri halako batek ihes egin izana.

Ez ahaztu *Axurtaro* poeman gaudela. Oker eta ezin haundi gabe etorri da aurrenekoa, mundu beltzera:

*An etzan da bat uma-miñetan, buruz lurrari josia  
Ara da artzaia, ardia berez ezin baledi balia.  
Oartu bage an du kume bat, jaio ta bela zutia.  
Amak limika dezan orduko, elurra bezain zuria.*

Ez baitu euskal senak alperrik jarria, **axuri** izena.

Arestian, jaio egin da bildots zuria. Orain, hil egingen dute ordean, gaitzak jotako ahari zaharra. Sangratu eta larrutu ondoren, barrenkiak ateratzen ari dira, batean eta bestean gaitzaren sorburu bila:

*..... Barrunbe bikain; birika arrosa kolore  
ubel (2) gibel, garbi ta legun, urik ta arririk gabe  
esteak, berriz, atis ziriak, oilloarenak bezain me  
Ori du nunbait gaitz izkutua.....*

Poetak berak egindako oharra duzu: (2) **More-gorrixka**. Ez kolore zehaztasunik inporta ez balitzaio. Nik neronek nabarmendu dizkizut berriz, *ubel* eta *gibel*, elkarren kidetasunik suma nahi bazenu.

Ondoko *gorri ugariak* berriz, leienda eta sinismen zaharren azalpen modura datoz. Gogora zaitetz, Bernardo Atxagaren ipuineko **gizabasurde zuri** hartaz. Baluke Orixek aipatzen duen **txerri gorri** honekin zer ikusirik:

*Aitona xalkor, zelaia barna, gertaera zarra agoan.  
Etxeberriko artzainarena, berri daduka gogoan:  
Lauso gorri bat ikusi zula Musulungo pagondoan;  
«Ux, txerri gorri» –esan ziola, alako bat zalakoan.*

*Andre Santa arek, erantzun dio: Ez nazu txerri gorria.  
Zerutik nator, neri deritzat «Garazi urre-gorria».  
Dazianoren agindupean Erio gorri ikusia... (1)*

Ipui honen zehaztasunik ez dut. Baina Orixek berak hala dio orri azpiko oharrean: (1) «Ipui au beste zenbait erritan ere bada; ausaz Europa guzian».

Ondoren Herribehera aldetik axuri bila datorren tratalari *Kokoa* –hala deitzen bait zion euskaldunak kanpoerrietako arrotz guziari– neurtzen du begiz:

*Koko geienak diran bezela, ez da betazal gorrizu  
besoa bai beltz, kaizua labur, esku ta lepoz zaintzu.*

Errekaldeko Zimurrio zaharrari eskeintzen dio zahatoa. Apenas ageri duen hortzik, ardoa zorrotenean ari den aho haundi zabalduan. A bai! bakar bat ageri du:

*Ardo eraiaz gorritzen dizu bakar bakar daukan ortza.*

Gero, esanen duenez poetak, axuri truk, **diru zuria** jasotzen du neguan *istilu gorriak* ikusia den artzaiak. *Zilar dirua* esanahi ote du **zuri** horrek, edo beste gabe, *eskudiru garbia*.

Hurrena *Letari* poema, lehorte luze baten ondoren hasten du poetak. Ikusi nola, paisajeari begira jarri ordu, ugaltzen den kolorea. Etxeko gauzak, ohiturak, eta batez ere giza harremanak adieraz behar hartan, ezin baitzuen Orixek koloreen ederrean galdu begirik. Oraintxe du aukera egokia, eta berehala aterako dio probetxu:

*Bi illabete legortek aurreratu Uda  
oraintxe ziñez artzai gaisoa galdu da...  
Lurrak gorri zituen Maiatz leneraino...  
Berrogeita zortzi orduz egoak indarra...  
Sasitik arantzare: ots okerragora  
**aize gorria** albotik mutiri sortu da:  
indar aulago arren, luzeago okotza  
izotz gogorak bezain gogor du biotza.*

Horra nola azaldu dizun haize **gorria**. *Ikus kolore zuriari eskainitako atalean, haize gorriaz esaten dena: hormaize lehor zorrotza.*

*Azari larrukera artu du larratzak  
alorrak igar daude, ez mardul baratzak  
artoiak **ori-gorri**, txuloz **bababeltzak**,  
erdi zimelik berriz, orritan zugatzak  
**kolore bizi**ena adarretan **untzak**.*

Badirudi hor, **berde** esatera ez dela ausartu Orixe. Erderakada dirudio nonbat. Oraingoan *urdin* ezin esan berriz, beste zenbaitetan egin duen bezala.

*Axuri borrotua nonai marrakari  
ille bezain ez du betondoa garbi  
iztar barrena **gorri**, **illun** betartea  
(Artalde goseak), mullo-belarra zearo du moztu  
bai garo orria ere, naiz **erdi gorritu**...*

Ondoren eguraldia oneratzeko herri *otoizak* hasten dira:

*Andre Garaziz geroz egin da Letari  
Iribasen dagoen San Fermin beltxari.*

Ez dakit zergatik deitzen dio Fermn Santuari **beltx**. Hurrena, erregu bidean dihoan mutilak noizean behin begia atzera itzuliz, bistatzen diren herrien berri ematen du, ezizenak bitarteko:

*Arako an dagona Beltxaran-erria  
barrenagoko arek Galtza du gorria...*

Ondoren, Mikel Goiaingeruak hil zuen herensugearen kontuaz ari da:

*Prantzi-muga du egoitza gorri, eriotz ororen zoko.  
Zenbat il-ezur jeki liteke il zituen a pentzeko.*

Segidan, honela dio poetak euskaldunari erregu, etsai arrotzek fedegabetu ez dezaten eta sinismen sendoan segi dezan:

*Erna adi napar, euskaldun ern; gaurko lozorro orretati.  
Ezak sismismen; esku oriek ez bitez, aurrera gorri...*

Berehala, apezak hasia dizu Letaria, Jaunari euri gozo eske:

*Apaizak asi du Letaria, zeru ta lurren aurrean  
Odeirik bada sabel gorririk, samurtuko ditu urrean,  
sinbeste lagunen otoitz beroaz zulaturik saietsean.*

Gero, zeinen erne ohartzen den satorrak lur gainera atera berritako lurpilla idorrean:

*Lurra, artaraino legor zalarik  
satorrak gorri du urratu*

Zeru ertzean agertua da dagoeneko hodei goibelen burruka:

*Eguzkitatik begiratuta margo beltzagoa dute  
Tximistak argi duan aldiro, ageri dira auts kolore.*

Eta usariozko hauts kolore hortaz baliatuz, konapazioa ondoren:

*txinarrak barna sartuz, amonak  
autsa biltzen duen moduan  
biamonean autsa zirrikaz  
sua arki baitu barnean  
ala Jainkoak odei beltzetik  
oiñaztura pizten zuan.*

Hiru kolore dabilta hor ezkutuko jokoan: hats kolorea, beltza eta gorria. Herri otoitzak euri gozoa ekarri ondoan, *Artajorra* dator:

*Artoak zuri-gorri egonik luzaro  
beltz-uridin biurtzeko oraïndik urtaro  
Izpi muturra gorri dadukan garia  
goiz artan izanen da erdoiz erantzia.*

Jorrarien artean duten neska erdisorgin bati buruz txutxu mutxuka ari dira beste guziak, baina ez lotsak gorritzen hura:

*neska orein bat dula besape txokoan  
nork igerri lioke sorgin betz ote dan?  
naiz sorgiña aipatu, lotsik emateko  
aundiagorik bear da ua gorritzeko*

Belarrez gailendua zegoen artalaurrean, bi kolorek erakusten dute joratuaren eta jorratzekoaren arteko muga. Euskal baserritar batek adieraziko lituzken koloreak agerian gelditzen dira hemen ere:

*Landan, anemen, bada mordoka jorrari  
atorra garbi, eta buruzapi zuri.  
Sail bat eraman bera; urrena bestea  
gorritzen dute, musker zegoen larrea.*

Pitxarra hartu du mutil jorrietako batek, baina zingaka hasi denean, ardo ustean ura datorkio ahora:

*iturri gorri orde zua zan itsaso!  
morroiak etzedukan begia argi oso*

Bitik batean nahiago bait zukeen:

*Zatoko beltz artatik noizean bein kurka,  
iturriko zuritik naiz izan lau xorta.*

Neska mutil maiteminduak amets kontari ari dira oraingoan. Gauerdiz esnatu zen batean mutilak hau ikusi zizun behin:

*..... -Zuri zuri, etorri ta joan  
atorrutsik zebillan Ilgungo landan.  
Beste munduko bailitz, arrituko ziñan  
Gero... larru gorririk irauliz intzetan.*

Iritsi da Doniane Gaua, eta herriko mutilek hartzen dute zahagi zulatu bat, dena pikez itsasia, sorgin zimurtuaren iduri bizia, makil baten puntan, eta sutan jartzen dute. Sorgin guzien izpirituak erretzeko ohitura zen hau, nonbait. Zeinen eder egiten den, bideko pike tanta beltzak sorginen odolola-rekin konparatze hori:

*Sorgin beltzak alare, ez egin nai argi.  
erre-ala pusketan naiago du erori;  
Sorginaren odolez jarioko pertza  
biamonez bidetan nonai tanta beltza  
«Sorginak erre» esanez aurrak ez dira ertsa  
gaur bide dugu sorgin denen eriotza.*

Segarako garaira helduak gara. Belar berdeak ontzeko teneroa:

*..... gorritu baino len alpitz  
ebaki nai du, xurtu ez dedin bota-ala segak ipurdiz.  
Lurraren azal muskerra arrotzen ari dira azpiti gora.  
Eguerdikoa Andre Eguzkia odei beltzek dute esitu*

Belar ontzeak, oskarbi denean, eguraldi onarekin, alegia:

*neke erdi luke, zeru goibelak zabal balenka leihoa  
Urtaldiz giro berdotza dala, lan onek zenbat amorru*



Aurreneko aldia Orixek **berde** kutsuko adierazpide hori erabiltzen duela. Gero, deusik bada eta, belar gaizki onduaren kolore **berdoldua** abudo nabaritutako dizu baserritarrak:

*Belarrak, zabalduz, bilduz, euri ta ateri  
usai, kolore jatorrak galduz ez du gozorik.*

Neska gerriederra, segarien gosasiarekin dihoa goiko belasora. Behelaino gainditu duenean, segatan isladatzen diren eguzki printzak datozkio begi zabalen ninira:

*Atzemantxe du Gerriederrek gandu zuriaren muga;  
euntzera begi, dirdir ikusten segen eguzki erreñua  
odei artetik ez du txismitak alaitzen ola barrua.*

Nahiz betean ez adierazi, kolore bizien barne dirdira dabil hor poetaren sentipenetan. Gero goiko belasotik beheko zokora *begiradaude* segariak, begiak bete atseginez:

*Gosalartean badakuskete, gure Eguzki Amandreak,  
esku leunez kentzen ditula azkeneko maĩndireak  
Laiño-sarean mendi dirudi len-etxe Goikoetxeak  
Etxeak oro esnatu dira, itzailia dugu laiño  
Lekunberriko zokoan daude loa betean oraiño  
Gure etxetako kei urdiña aldiz, zuzen doa goraiño.*

Gero, belarrekoan nola ez, *inguma zuri onberak* ageri dira; baina baita *sugegorri gaiztoen ziztakoak* ere. Batek, ezponda gaineko lizarpean etzanda zegoen Mikeli egin dio ermamitik hozka, eta sinismen zaharraren ariora, sendatzeko lau oiloren ipurmokoa sartu beharko du hatz muturra. Begira zertan errepatzen den amona sendagilea, suge pozoiak garbitzen ari direla ikusteko. Oiloaren galdorrek hartzen dizun kolorean, hain zuzen ere:

*Oso gorri ez bazeukan ere, zur(i)bildu zaio galdorra  
ubeldu gero, azkenik beztu, geldi dalarik min-sorra*

Aurreneko oiloak ipurmokoa estuka atera dio pozoi franko. Orain oilaskoaren txanda dator:

*Berandu gabe, jarri diote oillasko galdor gorria  
xurga ta xurga, nekezagorik biurtu zaio zuria;  
ubeldu gero, azkenik beztu, isildu da karraisia  
txuringa aspertu zaion ezkeru, egin emengo aldia.*

Hurrengo oiloari are nekezago aldatzen zaio galdorra:

*Oni luzegi besteai baño irauten galdorrek gorri  
Nonbait aituz ari zitzaion eden zitala Mikeli*

Laugarrenari berriz ez zaio galdor **gorririk** kolorez aldatuko. Mikel pozoiz gabe gelditu den sinale. *Izerdi berri; odolak lengo, kolore ederra*

*aurpegian*. Edenak **xuritu**a, orain **gorri**. Horra hor lezio ederra. Gero, euskalduna koloretan erreparatu ez dela esaka aritzeko! Baita Orixe ere, euskal usuarioak hala eskatzen duenean.

Larriak gurdia belarrez kargatzen ari diren artean, nexka koxkorra uztarbehiak zaintzen ari da, hosto xorta eskuan, euliak uxatu bidenabar. Ikusi duenak badaki, euli beltzaren kolorea nolatsukoa den eguzkitara. **Berde urdinska** esanen nuen nik:

*Euli beltz abundi, belar kolore, mandeuli mutur-zorrotza...  
Beien odola txasta ahal dutela, ez dute maite gorotza.*

Garazi, pozez txoratzen dago Mikel maitea onik atera delako sugeak egin dion ziztakotik. Amodioak **zuritu** bide dio bihotz odoltzu **gorria**:

*Maitea sendo dakusalarik, biotza dauka esnetan.*

Oraingoan *Eultzirako*, behor bila dabilta mutil gazteak mendian. Uitzu inguruko tokizenak dituzu maiuskulaz datozenak:

*Ozion asi ta Elutsetako zelai zokoen artean  
abere beltzik, zuririk naiko, ez du sumatzen arean;  
arago, Oinbegin, pago tarteko garo soilgune batean,  
beor ezur bat, zar urdindua, anka jasoz doi doiean.*

Sorginkeriak aipatzen ditu hurrena poetak. Harritzekoa da, nola *sorgin beltzak* izutzeko *baratzuria* erabiltzen zen. Haren usai biziagatik diote, baina, kolorea ere elkarren aurkakoa dizute. Hona zeinen dotore ageri zaizkigun sorginak:

*Sorgiñen ama eder, buruan urre gorritzko orrazea  
ikatz bano beltzago illea, zuri gorri larrupea.  
Begiak lauso ditzakena da aren lepoko katea (dirdiraz).  
Seda mataza ariltzen ari da hari baten adarretan  
urre adarrak zitun, azkazal urre gorriak anketan.*

Amona han dator, laster larrainean eultziko duten garia nolakoa den ikustera. Eskutan hartu, eta irran utziaz, hala dio:

*–Gari ederra; gixen, betea; zalkezik ez du;  
ogi zuria jateko badugu baintzat aukera.*

Berrito poetak, eultzi aldi bakoitzean gariak eginen duen kolore aldake-ta agertuko du:

*Zuri-arre zan garia ari oritzen eultzitu ala;  
eguzkindarrez, beorren lanez, dirdaitu zaio azala  
Irauli eta geldituko da arro ta arre len bezela  
Iru-laugarren iraultzaldian ori, txiki, ta zapala.*

Eultzian aritu diren behorren ondotik artasian ari den behi pareta ere, bat «**Gorria**» eta bestea «**Zuria**» izenekoak izanen dira, baserri giroko usuarioaren ariora. Gero, eguraldia txarrera doa. Zeru ertzeko hodeien kolorea adierazle:

*Ara kiketan, Gorritikotik odei gorrinen adarra  
Bertz baledi, nezarien bildur-ikarra ta arrena!*

Apaiza otoitzean ari dela, ostotsa entzuten da tarteka. Hodei nahasiak sorginak hartuak dituela uste du:

*Apeza ari da zurik jantzita, eliz otoitzak iretsiz  
osototsa berri duan aldiro, begien zuria ageriz  
Katalin sorgin ote dabilen Sorgin-Amarekin zaldiz  
Mari ama, len goizean zuri, odeiean gorri eder.*

Larraina gargi, zuri beraz, gelditu da, gari jotze lanak bukatu ondoan:

*Larraiña zuri, dantzarako gai, oinarriz ez baitu lurra  
Errotazarko, arbel leguna, joskura soilik zimurra.*

Lehen ere aipatua duen izen korapiltze **gorria** dator orain, gure usario-ko zintasan sinale, elkarrenganako amodioaren garbitasun eta edertasun irudi deneko **zuritasun** guzieren gainean neskak atsegin betean brodatua:

*Irun, garbi ta josi, azpildu barrena  
Atsegiñenik zaio lanetan azkena  
ari gorritz bordatu bi maiten izena  
fedea bezin nekez urra ditekena.*

Ezkontz aurreko egunean, senergaiarentzat gelditzen diren ondasunak zein diren azaltzen ari da poeta:

*Mikelek azi zuen guri bere ergia (mia gaztea)  
Illea gorrikara, betondo zuria.  
Beor gazte beltzurdin, kopetan izarra (zuria noski).*

Beti bezala, usarioaren harira, aski dotore dabil hor kolorea. Azinda kontuak dakizkiena jabetzen da hortaz ederki. Kopetan izar *zuridun* aberea, besteak baino pizkorrago eta biziago delako sinistea. Larrabehi gorritzak, betondoa *zuristago* izaten dizu normalean.

Eztaietan ere, bi ezkonberriak kolorez edertuak ageri zaizkigu:

*Kantak dio «ille oria», baiña Andre-bearrak gaztaiña  
elur arteko pagoa baiño beltzagoa du bekaiña.  
Zerua goien garbi dagota, errekondoan izotza  
Gizongai jaunak ontzat artzen du, atera zaite Eguzkia;  
Erakutsozu Eleder oni aurpegi zuri-gorria.  
Aurpegiaren zoragarria, soin beltzean nabarmen.  
Erastun ori gorritz egin dute katea.*

Gero, Donostiara doaz ezkonberriak, itsasoa **urdinbeltz**, estropadak ikustera. Zeinen maite duen Orixek bi koloreen nahasketa hau! Ohartu al zara maiz darabilkiela, bai itsasoa, bai zero goibela, bai ahari gibela, bai behor zaharra, edo beste zernahi gauza azaltzekoan. Ez dut batere gogoko sikologia, baina, nik esan behar banu, Orixeren izakera, oso ongi kokaturik legoke, jakinean edo ezjakinean berak hain maiz erabiltzen zituen bi kolore horien tartean.

Estropadatan koloreak izaten dira ontzi bakoitzeko arraunlari taldearen bereizgarri nabarienak. Herri xeheak ere haietxek jotzen ditu begiz. Eta poetak herriaren begitik ikusten du beti:

*Donosotiarrek agertu dira, gorputzak gorri.  
Asarragorik urak ez baitu, ubel urrena Getari  
urre-kolore Zumai ondotik; Zarautz azkenean zuri  
Zotzak egiñik, egoki dira: ubel, ori, zuri, gorri.*

Koloreen sailkapena egokia dela alegia, elkarrengandik bereizteko.

Getariarrek aurrena atera dira ontzitik, garaile. Baina, arraunlari batek badu ezongorik. Gaitza berriz, euskaldun usuario zaharrean, koloreak adierazten hobekien:

*Min zuri arek; denen ikara....  
larrua zurbil, ezpainak ubel  
zaiñetan ematen du otz...*

Estropadak iksui ondoren, itsasoari begira geratzen da biko ezkonberria, kolorearen dirdirak zorotua, Ameriketako ametsetan bezala:

*Kerik, aparrik, oiurik ez da; erabat urdin da latsa  
Eguzkia apal, etzinaldera; uretan urre-galtzara  
bide artatik, iñolaz ere, joaten Amerikara.*

Baina maets huts baizik ez den urgaineko **gorritasun** liluragarri hura, benazko bihurtuko da etxera itzuli, eta ganbarako artapila zuritu orduko:

*Etxera biur dirandeneko, begien txoragarria  
eginen dute, gezurrik ez dun artapil gorri gorria.*

Hil aginean den *Amona* elizara laguntzen duten emakumeen usuariozko jazkerarena da, *Euskaldunak* poeman egiten den azkeneko kolore aipamena:

*Aialdekoek lagun zioten, erdi-illetaz, Elizara  
soñean manto: nabar beltz banaz, aurreko legera.  
Elizkizuna buka ezkeru, zeramatemala etxera.*

Ezin hobeki datorkit *esanera* hori, poema nagusi honetan Orixek kolorea nola erabili zuen azaltzeko: *aurreko legera*. Halaxe erabili zuen kolorea Orixek.



## BAKANKAKO OLERKIAK

*Gorritiko Andreak* poeman, hara zer dion euskal emakumearen gorantzian propio egindakoan. Harritzeko bada ere, ez maitasun garbirik ez lizunkeria zikinik sumatzen du, hain erabilia den euskal usariozko *gona gorri* horretan; motz eta guzi, jatortasna baizik:

*Gona motz gorriak  
oiñetan abarkak.  
Oiek dira noski  
eusk'eme bizkorak.  
(.....)  
Onela bizi dira  
an giz-emeak  
mardul zuri, gorri  
samur ta gogorrak.*

*Lenengo Ortza* poeman berriz, Larraun aldeko larre soroetan belra tartetik sortzen askotan ikusia zuen ziza zuriarekin konparatzen du ahoko haragi tartetik sortzen den hortzaren zuria:

*Zizalarrean ziza joatzen dan eran  
ortz txuri txikia ara nun eldu dan*

Irudi joko berbera iraultzen du *Zize Garaioa* poeman, amona hortzik gabekoaz ari denean:

*Ortzik gabeko amona zarra aurtzen ez da ilko  
Ortza zurien antzera datoz zizak lurpetik.*

Gauza bera egiten du *Gure Zizak* delako poeman:

*Udaurrearen para da ziza belar-koroiaren tartean:  
inguruka ala jaiotzen dira ortzak aurraren oiean  
Ba dut illoba begibeltx beltza, tximistaren izpia dizu  
biamonean goiz goiz begiak lurrera ditu zorroztu.*

Ondoko hau beste berderik ez diot aurkitu nik oraingoz Orixeri:

*Goiz intzak parra eragin dio belar-koroi berdeari  
Osaba poz: «gaur ire egunean zizak ditut Joxe Mari»  
Zer ote zuten gure ziza aiek, kalekume xangoxuri?  
Intz, aize, eguzki, biotz begietan ogurtzi esan eziña  
Ez luzaroko! Jo zian usai ark zeruaren urdiña.*

Beraz, Azurmendik oker dio. Lizardiri ez, baina bere iloba Joxe Mari Aranalderi deitzen dio Orixek *kalekume begibeltx xangoxuri*. Hara zer dioen berriro, udaberri poeman gai berak uztartuz:

*Belar arte artan zizak txuri txuri,  
aiekin egingo arraul-opil giru;  
baiña, Joxe Maria, ez atsegin zuri.*

Ez zuen beraz, zizazale, Joxe Mari Aranalde iloba.

*Errotaria* poeman, *urrezko auts pilla* deitzen dio askan mukuruka dagoen irinari. *Ultzia* poeman ere gisa berera ahotz gariei:

*Ultzilari sail onelakoak. laster erraustu lastaluzea  
ta ori ori biurtu ultzia  
Iraultzean urrezko ondarra ageri zaio, itsaso txiki,  
uñ ondarretan ori oria.*

Itsi jaio zen neska Maitagarrienari eskaini zion poeman ere honela dio, amodioaren edertasun hutsa zuritiesunarekin parekatuz:

*Aren atz legun zuririk etzuen lastu lioak  
mulorik ere ez ukitu aren ortza zuritoak.*

Geroxeago gauza bera. Neskaren esku zuriak liluratzen du poeta, amonaren ardatzaren beltzari aurka jarria:

*Irulearen esku samurrean amagoinaren ardatza  
beltz ageri zan; baiña zein eder nexkaren elur-beatza.*

Segidan, *Ire Itza* poeman, *aize gorria* euskal usaarioan zeri esaten zaion azaldu bidenabar, kolore joko aski nabariak egiten ditu:

*Satalur pillak berritzen ditu aize gorria sortzean,  
nere begiak erneko ditun ire itza entzutean.  
Illaun-ikatta gorri ipintzen din arnasarik legunenak  
Aurpegi-illun au kenduko liken ire itzik laburrenak.*

*Laiño-Amasa* poeman ere kolore joko beratsua egiten du:

*Elurren zuriak atsegin ematen,  
baiñan aurpegi ori atseginago den.  
Ene! laiño beltza lurrera jeitsitzen  
Elurraren zuria bererala jaten!*

Hurrena *Antzar Jokoan* zaldunak **urdin-gorritz** jazten zirela azaltzen du, ez beste herridantza geienetan bezela **zurigorritz**. Hona *Andonenari* poeman diona, horren erakusle:

*Zuk berriz, eu mutil!, nagusi bazera,  
«Ingurutxo» dantzan datorren jaiean  
aurrena zubia igaroko duzu,  
txuriz eta gorritz eraikia.*

*Lasterkari Zintzo Bati* poeman ere zuribeltzarekin jokutzen du, kaleko ardozale moskorra eta mendiko artzai esnezale garbia elkarren aurka ipintekoan:

*Artalde zuria lagun, ez ikusi  
ik atzipe beltzik; erritik urruti  
Esnea besterik edan ez ta samur, axuri gisa ago  
ez dek ardoz erre ire barrenik, ez ubel ez zimurtu  
edale eduz ire larruperik.*

*Isiltasuna* poemako *ixil-aurre* ataleko pasarte hauek ere, Orixeren begiko xoramenari dagozkiola dirudi:

*Oiana dan aiña zabal, gain beroak erdi zapal  
Geldi geldiro arontz onontza, bakar naiz itzalez itzal  
Oiana ta ni batean gaitu ortziko urdiñak estal.  
Ostorik ez, ta lorea; lore biur dan erlea  
Sorgin inguma xuri-gorrixta, muskil gainetan ernea.*

Zenbat kolore ote dabil poetaren begian, kasik oharkabean pasatzen badira ere, ondoko pasarte honetan bertan?:

*Or dituzu zelai, or mendi kankaillu, or batez bat argi  
Su gurdi aurretik sorgin argiz lurra itsaso dirudi  
atzera begira, lur biurtzen ura, begien zurgarri.*

*Aizkorri Itsasoari* mintzo deneko poeman berriz, gorriaren *soiltasuna* erakusten du:

*Barka zaidazu Kantauri  
nere soiltasun honen ixeka ziñala nengoan:  
ain bai naiz gorria!*

Hara gaztelerara, zeinek eta, Gazteluz itzulia:

*Perdonad Cantábrico; pensaba que os mofabais  
de esta esterilidad mía: pues soy tan desnuda!*

*Panpaetan Izar* poeman ere ere oso dotore hasten du, gauaren ederra, bi aurpegiko txanpona bailitzan, kolore nagusibitan biribilduz:

*Ilun dago lurra, illargirik ez da, izar dago zeru.  
Bi obo biribil, bat beltza, bat urdin. Ni naiz erdileku.  
Zerua bertago izarrak gorrigo. Zelaia paketsu  
Begiklixka batez neurtuak dituk millaka eremu.*

*Eguzkia Jekitzen, Etziten* poemak ere badu kolore barraska ederrik:

*Orobat Eguzkiak ez du gaur makarrik,  
Ortzi guzian ez da nabari zardairik,  
itsas medien ertze, ubelik, gorririk  
Itsasoaren ertza gorri pinpiriña  
ara sartzen asi da Euzki Erregiña.  
Egunero jantzi bat eun berriz egiña  
gaur askotan bezela, ginga-margo ziña.  
Geldi bedi nolanahi gorputza; gogoa  
maitasun gorri miñez jantzirik bijoa.  
Odei beltzen makarra, obenen laiñoa,  
len suntsi bedi! Zuzen Zuregana noa!*

*Erodesenean* delako poeman berriz, ez da Orixeko alki zuriaren eroaz. Batzuk erokeri jotzen duten gurutzeko oinaze zuria, zuhurtasun zen haren-tzako: *Zorotasun omen Zure gurutzea; zurtasunik bada, au bedi nereaz:*

*Zuriz jantzi zaitu! Bai eder zuria!  
margo bikain, margo denen nagusia.  
Oker autatu du zoroen jantzia;  
Zuri da Zurtasun, Aitaren argia.  
Azari! ill-obi azal zuritua  
Ixil zegok ez dik zuritu bearrik.*

Nikolasen olerkigintzan, bai bere gisa egindakoetan, bai itzuli edo moldaturikoetan, nonahi ageri dira kolore zirtak. Baina, ez du merezi denak honara ekartzen aritzeak. Hemen aipatu gabe gelditzen diren pasartetan, batez ere, betiko *zuribeltzak* errepikatzen dira. Beltzak, alde gaiztoa hartzen dizu beregan: *gau beltzarena, etsai beltzarena, gorroto beltzarena, ezaldi beltzarena* etabar. Zuriak alderantziz, jainkozko argi zuriarena. Donibane Gurutzekoaren itzulpen honetan bezala:

*Ez esker gaizto neri nazelako beltxun  
Badator uso txuri mokoan muskillakin  
Uxapala maite zeukan arekin  
Urondo urdiñean batu dira elkarrekin*

Jatorrizko testuak berriz, honela dio:

*... la tortolica al socio deseado  
en las riberas verdes ha ballado.*

Beraz, lehen esanaz gain, deus gutxi gelditzen da esateko. Berdeari

**urdin** deitzen diola Orixek, eskapo egiten dion behin edo bestetan ezik. Euskal usuario zaharreen hain bakan ageri zela ikustean, arrotzegi egiten zitzaion nonbait **berdea**, eta ez zen ausartu lasa erabiltzera. Gero baditu, kolorearekin zer ikusi zuzena duten esanera herritar zoragarriak ere, *illun gorotza*, *begiak zuringotu*, eta holakoak. Baina, ezin bada, denak hemen aipa.

Uitzin hazi eta hezitako poetak usuenik erabili zituen koloreak, bere ingurumarian usarioz bizitakoak eta belarriz aditutakoak dituzu: *urdinbeltz*, *nibir-nabar*, *ubel*, *zurigorri*..., kolore nahasi bortitz latzak dabilzkizu Orixe-  
ren irudimenean iraulka. Euskal orografiari, bizimoduari, eta usuarioari dagozkion kolore peto petoak, eta, aldi berean, Oixeren barne burruka tragiko *nabarrari* zegozkionak.

Etzuen ez, jainkozko **xuri** xamurrak itsutu. Quiton Arrebarekin liburuan *Matxinadaz* ari dela, hemengo azken gerrate zibilaz alegia, hara nola darabilkin kolorea, beti ere usantza zaharrera. Hasi du gerra, badator giza erauntsi ikaragarria, bazter guziak urratuz Nafarroa aldera:

*N.-Auts kolore antza zen odei bildurgarri ura, ez oso beltza. Jesus amenean iritxi zunan gurera. Oraingoan odeitzarra beste aldetik etorri zunan, obeki esan, odei ta odei Napar aldetik, ipernu beltzaren parekoak. Lenbiziko odeia Urkietan agertu zinan tontor zurigorri.*

*D.-Ederra sorgiña?*

*N.-Gazte dala bai; zartu ezkerro deabru itsusi. Aur politei «xorgin» esaten zienagu. Beraz, odei zuri-gorri ori, barrenean beltza zunan, eta emeki emeki agertu zunan berrengo ustela. Odeiaren izena Gezur Zuri, gezurra zuri baita, Euskalerrian esana.*

*Bigarren odeia Zotzune gañean kokatu zinan bel-beltza. Izena Gezur-Beltz. Beste izenik etxun gurean latinez calumniadan orrek.*

Aurreraxeago berriz, hala segitzen du, Francisco Francori zurien *buruxkila* deituz:

*N.-Gezurra bai, gezurra! Berak bialdu gindunan Zurien Buruxkilak gorriekin, eta askotan berak aitortua. «Zuri» esango zienat, «paltso esatea bezela baita».*

*D.-Ta zeinek esan zun Pi XIIgarrenak, Urdiñen guda ori Gurutze-guda zala?*

Ikusia duzunez, bada hor kolore ugaritasun ederrik. Ez gainera kolore politikoak soilik, baita euskal usarioko *hauts kolore* eta *zuri faltsoaren* sinbologia ederrik ere. Aski da argibide horrekintxe. Orixek kolorea, herri xeharen begian jartzen du beti. Orixe ez zen behinere galdu Jainkozko goi **zuritasun** ustelean. Zuriaren eta beltzaren arteko burruka gaitzean bizi izandu zen Orixe. Gauzen muin bila beti, oinak *bere* lurrean tinkaturik ongi. Herri honek Orixearen ahotsik aditu nahi izandu ez badu, horrexegatik izandu da: argia, argiaren zuria, zuriaren zainak, menditik zetozkionalako hari. Hura behar bezela ezagutu gabe gaitzetsi zuen kalekume *xangoxuriak* berriz, zera esan zuen, García Lorcak pena haundiz esaten zuena: *la luz ya no viene del monte*. Eta hiriko *argi zikinaz* baliatu behar izan zuen.

Kontua da, Orixeentzako koloreen *ama* zeneko *argia*, menditik sortzen dela gaur ere, egunero. Mendi tontoretik, baso ertzetik, harkaitz tartetik edo itsas ertzetik. Baina, beti lurraren ingurutik. Santa sekulan ez,



beheko zokoetan eraikiak diren hiritzar haundien sabel ilun usteldutik. Hitz batetan esateko: eguzkirik ezin da eraman hirira. Hiriak begiratu beharko du eguzkitara, argiaren sorburura, koloreen ama mintzo deneko lekura.

Mistika itsu, fede estu, eta kaskagorkeria franko, bazuen noski Orixek. Halare, guzi horren oihartzun xitala inoiz bestek esanda belarri ertzean entzuteagatik, hura erabat bazterrera utzia daukan euskal idazleari, aski burugabea dela esatea besterik ez zait gelditzen.

## LABURPENA

Euskalerriko tradizioan koloreari emandako tratamenduak, Nicolás Ormaetxea idazle fruitukor ta jatorrarengan topatzen du bere erakuslerik adierazgarriena.

Entzumena –bere ustez zorrotzena, trebearena eta izpiritualarena– bereziki landu arren, euskal ikuspuntua erabiliz kolore aldaketetaz lanean aritu izan zen ere.

Ikusmenari poema eder bat («Argi ta Margo») dedikatu zion, bertan, eta gai honi buruz zuen interesa dela medio, KOLOREETAKO AMA SANTUA izena ematen dio ARGIARI.

Huitziko poeta hospetsu honen idazkietan agertzen den kolorearen mundua erakutsi nahi du lan honek.

## RESUMEN

El tratamiento del color en la tradición popular vasca tiene un valioso exponente en el prolífico y castizo escritor Nicolás Ormaetxea. Aunque cultivó preferentemente el sentido auditivo que consideraba el más agudo, hábil, puro y espiritual, no por eso dejó de plasmar los matices cromáticos desde la óptica vasca.

Dedicó incluso un hermoso poema («Argi ta Margo») en honor al sentido de la vista, en la que llama a la *Luz, santa madre de los colores*, como prueba del interés que mostró por el tema.

Este trabajo trata de reflejar el mundo del color que figura en las páginas del insigne poeta de Huici.

## RÉSUMÉ

Le traitement des couleurs dans la tradition populaire basque a comme représentant de choix, l'écrivain prolifique et bien de chez nous: Nicolas Ormaetxea. Quoiqu'il a cultivé de préférence le sens auditif qu'il considérait le plus mordant, habile, pur et spirituel; il n'a pas pour autant laissé de côté les nuances chromatiques au point de vue de l'optique basque.

Il a même dédié un beau poème («Argi ta Margo») en l'honneur du sens de la vue où il nomme la *lumière, «Sainte Mère des couleurs»*, comme preuve de l'intérêt qu'il montre pour ce sujet.

Ce travail essaye de traduire le monde des couleurs qui figure dans les pages de l'insigne poète de Huici.

## SUMMARY

The treatment of the colour in the Basque popular tradition has a valuable exponent in the prolific and genuine writer Nicolás Ormaetxea. Although he cultivated preferably the auditing sense, considered by him as the most sharp, proficient, pure and spiritual, he did not fail to shape the chromatic shades from the Basque point of view. He even dedicated a beautiful poem («Argi ta Margo») in the honour of the sense of sight, in which he calls the *Light, mother saint of the colours*, as probed by the interest he showed for it.

This work wants to reflect the colour world represented in the pages of the distinguished poet from Huici.

